




ELIAS ELORTZA:

"Hemengo klima-kontrastia gustau egitten xako sagar autoktonuari"

Baserri gehixenetan letxe Olabarrietako Auntzerreka zaharreko seme-alabak kanpora urten ebein lanera industriak ugarittu ziranian, baiña horregatio eztaue baserriko produkziñua bertan behera itxi eta lurrari probetxu apur bat ataraten xaue, fabrikan jardun ondoren anaien artian baserriko lanak egiñaz; gañera bakoi-tzak ei dako bere espezialidadia. Eliasen afiziñua edo espezialidadia frutagintzia da eta hori izan dogu berbabide nagusixa berarekin.



baiña hemen alde batera itxitta egon da. Ezta bape planifikau ze barazki edo fruta bariedade diran egogixenak gure terrenotarako; eta produktuak kanalizaitteko orduan be, etxate bertakua iri lekurik egin gure merkautetan; kanpoko produktuak euki daue preferentzia.

Gero, bertako terrenuak aldapatsuak eta lanketako zaillak izatiak eta oso zatittuta egotiak be ezta bape lagundu.

- Auntzerrekan asko aldatu dira baserri-lanak zuen gurasuen denporatik?

Bai. Guk be bagittuan bi sagastui mendialdian, baiña sagarronduko bota eta

- Gaur egun baserri bakarririk bizi-terrik badago?

Baserririk bakarririk ezta go bizimodurik, ez behintzat industrian soldata bat atarata besteko bizi-maillarik. Baiña baserririk ezin bizi izanagatik, lurra dakon baserritar batek laguntasuna euki leke bai barazkittatik, bai frutagintzatik eta bai ganaderixatik be, inguruak apur bat zaindu ezkeru.

Dana dala, lastimagarrixa da baserri-inguru askoren egoeria Euskal Herrixan.

- Zergatik dago ba halako egoera txarrian?

Faktore askok eragin daue horretan: Radiata edo piñu insignisaren inplantaziñuak, batetik, nabasia ekarri eben basueta-
ra, izugarri itxusittuaz inguru guztiak, eta bestetik, piñudixak lan haundirik emuten ez daueiñez, gazte gehixenak baserriko lanak alde batera jareta, soldata seguru baten atzetik fan ziran. Izan be, orain dala 30-40 urte fabrikan lana topaitta errezagua zan industriak euki eben desarrolluarengatik.

Planifikaziño faltia be izugarrixa egon da nekazari sektorian: Beste leku batzutan, Frantzian adibidez, industriarekin batera asko zaindu daue agrariaren desarrollua,

piñua sartu geben eta orain baserri inguruko arbolak eta soruak bakarririk lanketan dittugu, hori bai, fabrikako lan-orduak izten doskuen denporan. Ganauak be aspaldi kendu gittuan, frutagintziarekin ezitalako konpatibliak. Orain txarriak bakarririk dakogu; fruta hondarrekin hazten dittugu eta orturako eta frutaonduentzat biharrezkua dan sitsa emuten doskue. Etxerako txorixuak be oso ondo etorten xaku.

- Sagardaurik egitten dozue?

Ez, guk ez, ezta kogulako horretarako astirik. Baiña gure aittaren garaixan egitten geben, lehen esandako bi sagastui horretako sagar onenak konsumorako gorde, eta geraketa ziranakin. Fama haundixa ei eukan gure etxeko sagardauak. Izan be, gure aittak formula berezi bat ebatten eben: lupulua sartzen otzan gas puntua emuteko, baiña horrek be baekuan bere arriskua. Pasau izan xakun lupulu larregi bota eta botilla danak txanpaina letxe kortxua botatia. Horreik urte fatalak izaten ziran.

- Urtero egitten zebein sagardaua?

Ez, normalian bi urtetik behin. Hemengo sagarrak jarritta dagozelako "a la vece-
ria", hau da, urte baten dana sagar zatarra emuten daue eta hurrenguan ixa bapez. Batez be bertako bariedadairi pasaitten xate hori eta korregitako iñausketak egin bihar dira.

- Ze fruta klase dittuzue orain?

Fruta klase asko dittugu: sagarrak, madarixak, okaranak, mizperak, kerizak, gaztaiñak, urrak, intxaurrak, kibixak... Baiña mota edo bariedade diferente gehixen sagarretan dakogu, 32-35 bat; madarittan be beste 16-17 bat eukiko dittugu. Bariedade batzutatik igual arbola bat edo bi besterik ezta go, zela adaptaitten diran, zenbat produzitten dauein, jentiarri gustaitten xaten, ze gaitzek atakaitten dittuen eta abar esperimentaitteko.

- Kanpoko fruten aldekoa zara?

Badittut bariedade batzuk, sagarretan adibidez, bertakua baiño gehixago produzitten daueillako, baiña lana be askoz be gehixago emuten daue, gaitzak dirala eta ezitala.

Oñatin bertan dakogun terreno-sailekin baserriko produktuetan autosufizientiak izan geinkien



**VNZVRRVNZAGA
MINTEGIAK**

Mendiko landareak
Podaketak
Garbiketak
Plantazioak
Gabon zuhaitzak

Olakua, 16 1º D. Oñati.
Tfnoa: 78 21 64



Jose Ramon
Kortabarria "Sarramendi"
ERREKADISTA

**Paketeak,
dokumentuak,
tramiteak eta abar.
ONATITIK-DONOSTIARA
eta tarteko HERRIAK**

Errekalde, 2-1. Esk.
Tfnoa: 78 15 72
Altuna estankoa:
Kale Barria, 19.
Tfnoa: 78 00 03



Orain dala 30 bat urte oso modan egon ziran *Goldena, Estarkiña, Estarkinsona* eta Ameriketatik ekarritako beste bariedade batzuk, baiña hemen ez dira hain ondo adaptatu, frakasua izan dira, hemengo klima berezixa da eta. Garai horretan bertako bariedade asko kendu ziran eta batzuk betiko galdu ditugu.

- Frutagintzan resultau onak izateko, ze euki bihar da kontuan?

Fruta-arbolen rendimentua aseguraitteko bi kondizio bihar dira: alde batetik, gaitzik ez izatia eta bestetik katastroferik ez tokaitia, hau da, loragaraixan eguraldi txarrik ez, harririk edo izotz haundirik ez. Bertako bariedade gehixenak mariatzian loraketan dira eta horregatik dira seguruak; horregatik da hain inportantia aurretik planifikaitia zelako lur-klasia dan, ze sakontasun dakon, parajia haizetsua dan, eguzkirik jotzen dauen eta, batez be, lurra zenbat denporarako kondizionaitia gura dan, eta orduan aukeratu fruta bariedadia eta sustar-klasia.

- Ze sustar-klase dagoz ba?

Batez be bi: *pie frankua* edo hazittik datorrena eta *enanua* edo *klonalak*. Lehenengoak denpora gehixago bihar izaten daue produzitzen hasteko, arbolak bere ekilibriua topau arte igual 20 urtetik gora, baiña gero jeneraziñotarako izaten dira. Bestiak barriz, arbolarenak ez tiran landare-preparau batzutan txertautako frutonduek dira; lehenago hasten dira produzitzen, txikiñaguk izatian frutia batzeko eta iñausketako be erosuaguk dira eta, bizimodu motzagua eukitten daueiñez, eztaue terrenua hainbeste kondizionaiten. Sustar klonal honeik *East Malling* estaziñuan (Inglateran) desarrollautakuek dira eta EM-2, EM-7, EM-9... moduan katalogaiten dira. Geruago, honeik hobetuaz, *Malling Mertonek* MM-105, MM-106, MM-111... ize-nekuak atara zittuan.

- Frutagintzan zientziak asko aurreratu dau?

Segun zertan. Adibidez, arbolak txertau edo mentaitteko orduan baietz esango neke, orain "ojo durmientiarekin" ezta kogu hilberiarri begira egon biharrik.

Beste aldetik, frutiari itxura politta emuteko tratamendu hormonalak asko desarrollau dira, baiña gu horrein kontrakua gara, horrekin fruten itxuria eta gustua bardinke-



tia besterik ez talako konsegitten. Busca Isusi zumarragarrik esaten eben moduan "hobe harjua dakon sagarra garbixa baiño"; baiña ora indidiok jentia ezta hori apreziaitten, bistiarekin erosten dau, tratamendu kimiko eta hormonalekin lortutako forma, kolore eta tamaiñuari begiraketan xau. Eta nere ustez, horreik eta tratamendu sistemuak antiekologikuek dira. Horretan kulparik gehixen dakoiñak almazenaistak eta dendakate haundixak dira bertako produktuak baztertuta bista ona dakon frutia erosten daueillako. Baiña ze garantixa dako fruta honek? Seguru ur apur bat eta tratamendu eta abono kimiko pillia, baiña biologikotik ez bez.

- Eta gaitzak edo gaixotasunak tratatiteko orduan?

Motxillia erabiltiarene alde gagoz, baiña ahal dan gutxien. Ze horretan be astakerixa

galantak egin dira, tratamenduak jenerali-zaittiagatik.

Bi gaitz klase nagusi dagoz: gorriña eta txankrua lako gaixotasun *fungosak*, eta gero bitxuek: pulgoiak eta karpokasa edo harjua. Lehenengoak ebitaitteko, ahal dala, gaitz hori atakaiten etxauen bariedadia ez sartzea euki bihar da kontuan eta jeneralian bertakuek arrisku gutxiago eukitten daue kanpokuak baiño.

Peninsulan bi klima dagoz: Kantabrikoa eta Mesetakua edo Mediterraneoak; eta hona klima kantabriorako egogixak diran arbolak besterik ez tira inportau bihar.

Oso inportantia da gaitza dakon arbolak bakarrik trataitia eta ahal dan suabien, arbolen ekilibrio ekologikua mantenitteko.

Batez be zuhaitz gaitiak zaindu bihar dira pulgoi berdiaren atakiengandik, bestela oso murriztuta itxiko dittu.

Etxe komertzialak esaten daue tratamendua noiz egin, baiña tratamenduok alde batetik peligrusuek izanik, bestetik desekilibrio haundixak ekarten dittue, bitxo txarrekin batera onak be akabaiten ditueillako. Hau dala eta hemen sekula egon ez tiran zomorruak, armiarma gorrixa etabar ugaritu egin dira. Honetaz Rufino Ugartek be asko daki.

Frantzian, adibidez, badabitx tratamendu ekologikuek desarrollaiten: esaterako, matxingoringuek hazi eta soltaiten.

Nik eztaikit zela ezta "colza"ren antzerako kasu gehixago emuten tratamendu kimikuek hain zabalduta egonda



MARDO

JUAN ANTONIOTXINTXURRETA

3Erakusketa:
TXINTXURRETA DROGERIAN
Apolaza, 4 Tfnoak: 78 30 12 / 78 14 73 OÑATI

Hautsik gabeko lijatu eta barnizatuak

- Itsatsitako parketa
- Parket flotagarria
- Moketa
- Sintasola
- Kortxoak

Terrazo eta marmolaren finketa eta diztiraketa